

## HEZKUNTZA 01

*Denok ezagutzen dugu balio horri nolako garrantzia ematen zion Arizmendiarietak. Behin eta berriro etortzen zitzaigun bere beharra azpimarratzera, etorkizunera begira izango zuen eragina gogoraztera... Hainbeste hitzegin zigun Hezkuntzari buruz, beharko ditugula bizpahiru bidalketa aukeratuta dauzkagun pentsamenduak banatzeko, aztertutako ikuspegi ezberdinen arabera banatuz. Lehen honetan jaso ditugu hezkuntza orokorrean hartuta eta gazteei begira idatzitakoak: aurrerago luzatu dizkizuegu lana, enpresa, burujabetza edota sozial eraldaketa gaiekin lotutakoak...*

***Jakintza boterea da eta boterea demokratizatzeko alde aurretik jakintza sozializatu beharra dago. Ez dugu ezer egiten eskubideak aldarrikatuta gero eskubideak onartu dizkiegun gizakiak beren burua administratzeko gai ez badira, zerbait egin ahal izateko ezinbesteko diren gutxi batzuegana jotzea baino ez badute.***

## BESTE PENTSAMENDU BATZUK

- Gizakia gizaki jaio baino hezkuntzaren bidez egiten da gizaki.* 172
- Gizakia hezkuntzaren bidez egiten da gizatiarra. Zibilizazioak azkar egiten du aurrera beti hezkuntzaren edo prestakuntzaren bidez, giza balioen eta balio sozialen bila.* 174
- Errazagoa da gazteak heztea gizakiak zuzentzea baino.* 178
- Baliorik galtzen ez duen ondare eta balore bakarra gizakien prestakuntza da: Formazioa.* 182
- Jakitea ahal izatea da.* 184
- Jakintza sozializatu egin behar da, boterea demokratizatzeko.* 185
- Aurreikuspenik emankorrena eta errentagarriena da gizakiak egiteko erabil dezakeguna, gizaki horien gainean eraiki eta altxatu baitaitezke herri osasuntsuak.* 207
- Hezkuntza da gure gazteen eta gure gizartearen beraren zortearen eta etorkizunaren gakoa.* 209
- Ez dezagun amets egin etorkizun hobe batekin, aurretik etorkizun hori prestatzeaz arduratzen ez bagara. Hain zuzen ere, horretarako biharko gizakiak izango direnen arima gazteak modelatu beharra dago aurretik.* 210
- Seme-alabak gure poza eta gure hondamena dira, eta bata edo bestea izango dira gure heziketa lanaren arabera.* 211
- Etorkizunean izango dugun zortea pasa garen ikasgelen araberakoa izango da, jaio garen sehasken araberakoa baino gehiago.* 212
- Gizaki baten prestakuntza bera agertu baino ehun urte lehenago hasten da.* 214
- Irakaskuntza eta hezkuntza dira herri baten lehen zeregina.* 216
- Formazioa giza bertute guztiak lantzearen parekoa da, bereziki azpimarratuta pentsatzeko gaitasunaren lanketa.* 226
- Eman arrain bat gizaki bati eta egun baterako jana izango du. Irakatsi arrantzan egiten eta geratzen zaion bizitza osoan jango du. (Arizmendiarietak sarritan erabilitako esaera zaharra)* 417